

# Koloreak

30-45 minutu / +3 urte


Haur guztiak borobilean jarriko ditugu eserita eta borobil erdian robota utziko dugu.

Marra zuzen imaginario batean, 15 zentimetrero kolore desberdinetako objektuak jarriko ditugu.

Kolore bat esango dugu eta hurrek robota kolore hori duen objektuarengana joan eta bere tokira itzultzeko programatu beharko dute.

Aurrera eta atzera aginduak erabiltzea nahikoa izan behar du.

**Oharra:** *Beebota aurrera edo atzera mugitzen den bakoitzean 15 zentimetro desplazatzen da.*



Helburuak	Konpetentziak	Materiala
<ul style="list-style-type: none"><li>• Oinarrizko koloreak identifikatzea</li><li>• Espazioaren ezagutzea (Aurrera eta atzera)</li></ul>	<b>Dizplinaratekoak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Matematika OK2</li><li>• Artea OK5</li></ul> <b>Metadiziplinarrak</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Pentsatzen ikasi OK8</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Beebot robota</li><li>• Koloretako objektuak</li><li>• Koloretako alfonbra (aukeran)</li></ul>

## Aukera gehiago

1. Adinaren arabera, kolore gehiago ala gutxiago erabil ditzakegu.
2. Kolore konbinazioak ere erabil ditzakegu. Adibidez, laranja kolorea duen objektura joateko gorria + horia esan.
3. Objektuak erabili ordez, koloretako alfonbra bat erabil daiteke edo alfonbra gardenean koloretako marrazkiak jarri.
4. Robotaren ibilbidea sekuentziatzeko sekuentzia txartelak erabil daitezke.